

# IRAKURKETA ERRAZAREN GIDA

---



Irakurketa  
Erraza

# TXUSPO POYO Anónima

---

Azkuna Zentroa – Alhóndiga Bilbaok, Euskadi Irakurketa Erraza elkartearekin lankidetzan, Irakurketa Errazaren Gida argitaratzen du erakusketa bakoitzarekin batera.

Edukiak hizkuntza erraz eta argian idatzita daude, eta berariaz diseinatuta irakurtzeko edo ulertzeko zailtasunak dituzten pertsonentzat.



---

**TITULUA:** Anónima

**ARTISTA:** Txuspo Poyo

**TOKIA:** Azkuna Zentroa (Erakusketa Aretoa)

**EGUNAK:** 2026ko otsailaren 19tik maiatzaren 17ra

---

# ARTISTA

---

Txuspo Poyo Altsasun jaio zen, Nafarroan, 1963an.

**Diziplina anitzeko** artista bat da.

Arte Ederretan trebatu zen Euskal Herriko Unibertsitatean (EHU) eta New Yorkeko bi zentrotan.

## **Diziplina anitzekoa:**

diziplina edo lan egiteko modu desberdinak erabiltzen dituena. Artean, bideoa, argazkia, eskultura, soinua... nahasten ditu.

Hainbat sari jaso ditu, hala nola Gure Artea 2006an eta Unión Fenosa 2008an, eta Botín Fundazioaren eta Multiverso BBVAren bekak jaso ditu.

2021ean, Espainiako Akademiako egoiliarra izan zen Erroman, eta 2025ean, Donostiako Tabakaleran.

Banakako erakusketak egin ditu Artium Museoan, La Panera Arte Zentroan, Costa Ricako Arte eta Diseinu Museoan eta Montcada Aretoan.

Hainbat erakusketa kolektibotan ere parte hartu du, hala nola espazio hauetan: New Yorkeko Artist Space, Erromako Galleria Nazionale, Reina Sofía Museoa, Guggenheim Bilbao Museoa, Fondazione Sandretto Re Rebaudengo, Arte Garaikideko Andaluziako Zentroa eta Angolako Trienala eta File São Paulo.

# KOMISARIOA

---

Erakusketa honen **komisarioa**

Álvaro de los Ángeles da.

Idazlea, ikertzailea eta Arte Ederretan lizentziaduna da

Valentziako Unibertsitate Politeknikoan

eta Southampton Institute of Higher Education-en.

Arte Ederretako Masterra du

Erresuma Batuko Norwich School of Art and Design-en.

2014 eta 2018 artean, Institut Valencià d'Art Modern-eko

Kultura Jardueren eta Programen zuzendariordea izan zen.

30 erakusketa baino gehiagoren komisarioa izan da.

Horien artean nabarmentzen dira

“Registros contra el tiempo”,

Marcelino Botín Fundazioan 2006an,

“Herramientas del arte. Relecturas”,

Sala Parpalló-n 2008an, eta “(sic) Societat i cultura”,

MuVIMen 2009 eta 2010 artean.

Artista plastiko eta bisualen lanari buruz idatzi du,

besteak beste, hauetaz: Bleda y Rosa,

Isidoro Valcárcel Medina, Antoni Muntadas,

Daniel G. Andújar, Ana Amorim,

Esther Ferrer eta Joan Fontcuberta.

Hainbat kultura-aldizkari

eta -hedabidetan ere kolaboratzen du.

**Komisarioa:** erakusketa bateko lanak aukeratzeaz arduratzen den pertsona; gaian aditua da eta erakusten denari buruzko diskurtso teorikoa egiten du.

## **ERAKUSKETA: Txuspo Poyoren obra**

---

Txuspo Poyo arte-forma desberdinekin  
lan egiten duen artista bat da.  
Zinema, bideoa, argazkigintza  
eta instalazio artistikoak erabiltzen ditu.

Lanetan kultura, teknologia eta politika  
jorratzen ditu, besteak beste.  
Ideiak nahastea gustuko du,  
hala nola errealitatea eta fikzioa, zientzia eta **mitoak**,  
iragana eta oraina.

Bere lanek gogoeta piztu nahi dute  
botereari, kontrolari eta egungo historiari buruz.

**Mitoak:** zerbaiten  
jatorria azaltzen duten  
antzinako istorioak. Ez dira  
benetakoak, eta jainkoak,  
heroiak, izaki magikoak  
eta antzeko pertsonaiak  
erabiltzen dituzte.

## **ERAKUSKETA: “Anónima”**

---

“Anónima” da Txuspo Poyori buruz  
egin den erakusketarik osatuena.  
Gonbit egiten du bere obra hobeto ezagutzera  
eta ondo ulertzera zergatik den artista garrantzitsua  
egungo artean.

Erakusketaren izenak  
belaunaldiz belaunaldi transmititzen den  
herri-ezagutzari egiten dio erreferentzia.

Erakusketak Txuspo Poyoren lan asko  
erakusten ditu, 1990eko hamarkadatik  
gaur arte.

Álvaro de los Ángeles erakusketaren komisarioak  
artistaren mundu pertsonala  
azaltzen duten lanak aukeratu ditu.  
Lan horiek batera uztartzen dituzte  
gai historikoak eta dokumentalak  
eta artea sortzeko modu berriak.

Era berean erakusketak azaltzen du artistak  
nola lan egiten duen, sortzeko duen modua  
eta **berritzeko** duen gaitasuna.

**Berritzea:** gauzak beste era  
batera egitea da.

Erakusketan, artistaren proiektu garrantzitsuak  
ikus daitezke,  
hala nola “Cadáveres exquisitos”.  
Proiektu horretan, artistak egunkarietako  
**hilberrietan** esku hartzen du.  
Horrela, memoria pertsonal eta kolektiboa  
nabarmentzen du.

**Hilberria:** hildakoei buruz  
hedabideetan argitaratzen  
diren iragarkiak.

Beste lan batzuk ere badaude, hala nola  
“Izaro”, “Expediente: Túnel de la Engaña”  
eta “Gabinetes pedagógicos”.  
Proiektu horiek identitateaz, historiaz eta memoriaz  
hitz egiten dute.

Txuspo Poyok benetako dokumentuak  
erabiltzen ditu obra guztietan.  
Bideo- eskultura- eta argazki-piezak  
egiten ditu haiekin.

